

Bigarren Hezkuntza

2. zikloa

DBHko 3. eta 4. mailak

12 ERROPERETA
KONTZELU
ABURRATSLAK



JUSTIZIA

Lantzeko garaia

SED materialak
24-25



Elkartasuna | Hezkuntza | garapena

Materialen aurkibidea

Jarduera

Egunkaria

03

Eranskinak

1. eranskina

05



Jarduera

SAIOAREN DESKRIBAPENA

Jardueraren izenburua:

Zer gertatu da zu horrela jantzi ahal izateko?

Tokiak:

Ikasgela

Etapa:

Lehen Hezkuntzako

Maila:

3. eta 4. mailak



Beharrezko materialak:

Pos-it bat ikasle bakoitzeko.

Mapamundi handi bat. (l. eranskina, adibide gisa) Proiektagailua eta ordenagailua.

Ahal bada, eta emaitzetan ahalik eta heterogeneotasun handiena lortzeko, hobe izango da ikastetxeko uniformeak ekarri behar ez duten egun batean egitea tutoretza.



Denbora:

50 minutu



SAIOAREN GARAPENA

Mapamundian kokatzea

Sarrerako jarduera honetan, jantzita daramatzaten arropak non eginak diren aztertuko dute ikasleek, eta post-it bat itsatsiko dute jatorrizko herrialde horri dagokion mapako zatian (garapen-bidean dauden herrialdeak).

“Ohiko” kontsumo moduen bidez erosten ditugun jantzi gehienak Asiako hego-ekialdean eginak direla egiaztatu nahi da jarduera honen bidez. Jantzigintzaren esparruan, gero eta enpresa gehiago deslokalizatzen dira, hainbat arrazoigatik: ekoizpen-kostuak txikiagoak direlako (langileak esplotatuz, bideoan ikusiko dugunez, edo haurrak esplotatuz, ingurumenari eta giza osasunari kalte egiten dituen ekoizpen-produktuen bidez...), langileen eskubideak edota giza eskubideak ere bete beharrik ez dagoelako, jarduera-lizentziak erraz lortzen direlako edo horien beharrik ez dagoelako, jarduerarako behar dituzten lursailak merkeago eskuratzen dituztelako...

Ikasgelan, pos-it bat emango zaio haur bakoitzari. Gero, jarduerari buruzko sarrera bat egin ondoren, une horretan jantzita daramatzaten jantziak non eginak diren aztertzeko eskatuko zaio ikasle bakoitzari (jantzien etiketei erreparatuak diete horretarako). Ikasgelako arbelean adieraz dezakegu, edo mapamundi bat erakuts diezaikegu. Jantziak non eginak diren egiaztatu ondoren, jatorrizko herrialdea idatziko da post-itean, eta, gero, banan-banan, post-itak mapamundian itsasten joango dira.

Taldeko hausnarketa

Zergatik gertatzen den hori aztertuko dute (lan-eskubiderik ez izatea, ingurumena zaintzea, etab.)

Normalena post-it mordoa Asiaren ekialdean itsatsita geratzea da, baina, lortzen ditugun emaitzak bestelakoak badira, emaitza horiek estrapolatzeko aukera izango dugu. Ondoren, zergatik gertatzen den hori aztertuko dugu ikasleekin. Gainera, Afrikan eta Amerikan zergatik dauden post-it gutxiago ere galdetuko dugu (lehengai gehienak kontinente horietatik datoz, eta Asiako langileak erabiltzen dira, merkeagoak direlako).

Ekuazioa xumea da, eta ez dauka misteriorik. Jantzigintzako enpresa askorentzat (eta beste sektore askotako enpresentzat ere bai), askoz merkeagoa da beren produktuak horrelako herrialdeetan ekoiztea, hots, langileei soldata txikiak ordaintzen zizkien herrialdeetan. Bangladeshen, esaterako, arlo horretako langileen hileko ordainsaria 50 €-koa da, gutxieneko soldatari dagokiona; herrialde horretako gutxieneko soldata munduko txikienetakoa da. Salmenta-tokietan prezioak izugarri jaisteko aukera ematen die horrek jantzigintzako etxeei; izan ere, lehen munduko soldata-kostuak, zergak eta laneko segurtasun-baldintzak ordaindu beharko balituzte, jantzien prezioak ez lirateke “lehiakorrak”.

Formularen osagarri dira garrantzi handiko beste bi faktore hauek ere: alde batetik, jantzigintzako enpresek Hirugarren Munduan ordaintzen dituzten soldata oso txikiak badira ere, herrialde horietako batez besteko soldata baino handiagoak dira. Gainera, langabezia endemikoa dute herrialde horietako askok, eta, beraz, beti egongo dira



lan egiteko prest dauden pertsonak. Bestalde, mendealdeko kontsumitzaileek jantzi merkeak eskatzen dituzte, begien bistakoa denez, eta gutxi dira, are gutxiago krisi garaiotan, gehiago ordaintzeko prest daudenak edo jaka bat erosi aurretik etiketari begiratzen diotenak. Azkenetako, garaile ateratzen dira enpresak eta Lehen Munduko kontsumitzaileak, eta Hirugarren Munduko langileak ere 'garaile' ateratzen dira, kontuan hartuta ez dutela aukera gehiagorik edo hoberik bizi-rik jarraitzeko. Eraikin bat erori eta azpian ehunka langile harrapatzen dituen arte, begien bistan geratzen baita orduan badela zerbait hor ondo ez dabilena. Halaxe gertatu zen, esaterako, Bangladeshen, 2013an (Bangladesheko Rana Plazako tragedia, eraikina erori zenean).

Adibide bat: Rana Plazako tragedia:

Honako bideoa hau ikusiko dugu, Rana Plazako tragediaren ostean guztiak berdin jarraitzen duela ikusten baita.

Honen guzti honen ondorioak bideoan ikusi ditugu: lanean esplotatzen dituzten langileak, laneko eskubideak eta, beraz, giza eskubideak sistematikoki urratzen dituzten enpresak. Esate baterako, Bangladeshen, lanaldia goizeko 8etan hasten zen, eta gaueko 10etan amaitzen, astean zazpi egunean. Edota Indiako lantokietan, hileko soldatak 45 -53 € bitartekoak ziren, eta lau kideko familia baten kostua janaritan 53 € ingurukoa zen hileko.

Datuak aztertzeke, adituen taldeak osatzea

Zenbait talde osatuko dira ikasgelan, eta talde bakoitzak webguneko zati bat landuko du, modaren industriak nola lan egiten duen aztertzeke.

Azter dezagun orain zehaztasun handiagoz modaren industria. Adituen taldeak osatzea proposatzen da, talde bakoitzak webgune horretako atal interesgarri bat irakur dezan eta gainerako ikaskideei azaldu diezaien. Horretarako, lau talde osatuko ditugu, esleitutako gaiak errepikatzerik nahi ez badugu; edota gaiak errepikatu ditzakegu, lau talde baino gehiago osatzen badira, eta datu berriei osatu aurrez landutakoa. Hauek dira lau aztergai interesgarrienak:

- Moda azkarra
- Ingurumen-inpaktua
- Lan-baldintzak
- Gure inpaktua nola murriztu dezakegun

Webgune honetako edukiekin lan egingo dugu.

Ondoren, talde bakoitzak landu duen atalari buruzko aurkezpen labur bat egingo du.

Irasleak jarduerari amaiera ematea

Talde bakoitzak ateratako ondorioz hitz egingo da, eta, ekarpen modura, ikusitako sistema hobetzeko balio dezaketen zenbait adibide emango dira.

Azkenik, gure inpaktua nola murriztu dezakegun azaldu duen azken taldearen ondorioak osatu egingo ditugu. Gaur salatzen ari garen sistema hori hobetzeko nola lagundu dezakegun zehazteko, zenbait aholku eman ditzakegu:

Zer egin dezake gutariko bakoitzak?

1. Ez erosi arroparik, benetan behar ez baduzu.
2. Zure arropari 'baztertu' aurretik, pentsatu ondo.
3. Aztertu zer dagoen atzean. Ikertu nola egiten dituzten zuk gustukoen duzun markako jantziak.
4. Bilatu Bidezko Merkataritzako jantziak dendetan eta gure erakundeek kudeatzen dituzten saltokietan. 140 baino gehiago da autonomia-erkidego guztietan: www.comerciojusto.org/tiendas
5. Kontuan hartu ekoizle diren enpresek zer adura duten. Egin bat aktibo dauden kanpainekin, jantzen duzun arroparen jatorria eta ekoizpen-baldintzak aztertzeke eta arakatzeke. Adibidez, Arropa Garbia kanpaina: www.ropalimpia.org/es/
6. Arrazionalizatu zure kontsumoa. Erosi arropa gutxiago, eta kalitate hobekoa. Fast fashion edo moda azkarraren eredua etengabe arropak aldatzean eta txandakatzean oinarritzen da, kontsumitzaileei jantzi berriak eskaintzeke etengabe. Horrek presio handia eragiten die langileei, jantziak egin eta emateko oso epe zorrotzak ezartzen baitizkiete.
7. Erosi tokiko produktuak.
8. Ehun sintetikoak edo artifizialak aukeratu beharrean, aukeratu ekoizpen ekologikotik datozen ehun naturalak. Birziklagarriak dira, eta ez dira horren kutsakorrak, ekoizpenaren nahiz sortzen dituzten hondakinen ikuspegitik.

Aukerak

Ondorioak osatzeko erabil daitekeen **baliabidea**.

Bidezko Merkataritza zer den azaldu eta aztertu nahi badugu, oso ondo azaltzen da **webgune** honetan.



eranskinak

1. eranskina

